Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abenduaren 31, osteguna — 250 — Jueves, a 31 de diciembre de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*529/2020 Foru Agindua, abenduaren 29koa, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua onesten duena.*

Urtarrilaren 16ko 41/2017 Foru Agindua, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua onartzen duena, 2017. urteaz geroztik ari da arautzen herrialdez herrialde egin behar den informazio hornidura, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 43. artikuluko 10. eta 11. apartatuetan aurreikusia.

Maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauak, zerga arau jakin batzuetan hainbat aldaketa sartu zituenak, apartatu horiek aldatu zituen 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, eta horren helburua izan zen informazioa herrialdez herrialde aurkeztu behar duten entitateen eremu subjektiboan zenbait aldaketa sartzea.

Ondorio horietarako, urriaren 15eko 486/2018 Foru Aginduak aldaketak sartu zituen urtarrilaren 16ko 41/2017 Foru Agindu horretan. Zehazki, haren eranskinaren edukia aldatu zuen «informazioa herrialdez herrialde aurkezteko baldintzarekin» lotuta dauden aldaketak 231 ereduan islatzeko.

Foru agindu honek badu beste xede bat, eta da aipatu dugun 41/2017 Foru Aginduaren eranskinaren edukia Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) oharretara egokitzea.

Izan ere, ELGAk adierazi duenez, Espainiako lurraldean egoiliar diren entitateak Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen entitate baten menpeko badira zuzenean edo zeharka, eta entitate hori beste baten menpeko ez bada, entitate horiei buruzko informazioa trukatu beharko da, bai eta taldeko entitate ez-egoiliarrek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrei buruzkoa ere, baldin eta entitate ez-egoiliarrak uko egiten badio taldeari buruzko informazio guztia edo haren zati bat lurralde espainiarrean egoiliartutako entitateari edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkorrari emateari. Kasu hori aurreikusita ageri da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 43.10 artikuluko azken hirugarren paragrafoan, non esaten baita informazioa herrialdez herrialde ematera behartutako entitateek daukaten informazioa aurkeztu behar dutela, eta Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri eman beharko diotela. Indarrean dagoen eranskinarekin, ezinezkoa da Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri ematea. Hori dela eta, egokitzat jo da informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua onetsi zuen urtarrilaren 16ko 41/2017 Foru Aginduaren eranskina aldatzea informazioa herrialdez herrialde trukatzeko eskeman ELGAK proposatu dituen aldaketak ereduan islatzeko.

Aurrekoa aintzat hartuta, 231 ereduak bere onarpenetik izan dituen aldaketek gehi gaurko gainerako arau esparruan gertatzen ari direnek komenigarri egiten dute 231 ereduari buruzko foru agindu berri bat onestea haren barruan eredu horren araubide juridiko guztia jasoz, alegia: ereduaren edukia, hura

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 529/2020 de 29 de diciembre por la que se aprueba el modelo 231 «Declaración de información país por país».*

La Orden Foral 41/2017, de 16 de enero, por la que se aprueba el modelo 231 de declaración de información país por país, ha venido regulando desde el año 2017 el suministro de información país por país prevista en los apartados 10 y 11 del artículo 43 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Dichos apartados fueron modificados, con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2016, por el ordinal primero del artículo 2 de la Norma Foral 1/2018, de 10 de mayo, por la que se introducen modificaciones en diversas normas tributarias, con el objeto de introducir una serie de cambios en relación con el ámbito subjetivo de las entidades que han de presentar la información país por país.

A estos efectos, la Orden Foral 486/2018, de 15 de octubre, por la que se modifica la precitada Orden Foral 41/2017, de 16 de enero, modificó el contenido de su anexo para reflejar aquellas modificaciones relacionadas con la «condición por la que se presenta el informe país por país» en el citado modelo 231.

La presente orden foral tiene, a su vez, como objeto adecuar el contenido del anexo de la mencionada Orden Foral 41/2017, a las indicaciones de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE).

A este respecto, la OCDE ha indicado que debe intercambiarse información sobre las entidades residentes en territorio español dependientes, directa o indirectamente, de una entidad no residente en territorio español que no sea al mismo tiempo dependiente de otra así como sobre los establecimientos permanentes en territorio español de entidades no residentes del grupo, en el caso de que la entidad no residente se negara a suministrar toda o parte de la información correspondiente al grupo a la entidad residente en territorio español o al establecimiento permanente en territorio español. Este supuesto está previsto en el artículo 43 apartado 10 antepenúltimo párrafo de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y establece que las entidades obligadas a presentar informe país por país, presentarán la información de que dispongan y notificarán esta circunstancia a la Administración tributaria. De acuerdo con el anexo que se va a sustituir, no era posible comunicar a la Administración Tributaria tal circunstancia. Por esta razón, se ha considerado conveniente modificar el anexo de la Orden Foral 41/2017, de 16 de enero, por la que se aprueba el modelo 231 de Declaración de información país por país, para reflejar los cambios propuestos por la OCDE en el esquema de intercambio del informe país por país.

A la vista de lo anterior, las modificaciones que ha sufrido el modelo 231 desde su aprobación, además de las que concurren en el resto del marco normativo actual, aconsejan la aprobación de una nueva orden foral por la que se apruebe el modelo 231 que integre todo el régimen jurídico del citado modelo, a

EK\CV GAO-I-2020-07084

aurkezteko epea, aurkezpen elektronikoaren baldintza orokorrak eta prozedura, eta informazioa herrialdez herrialde aitortzean sortzen diren mezu informatikoen formatua eta diseinua.

Arauak emateko ahalmenari dagokionez, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 20 bis artikuluko 1. apartatuak informazio hornidura horren erregelamenduzko garapena jasotzen du, eta bertan dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartuko duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 43. artikuluaren 10. apartatuan ezartzen duen informazio obligazioa betetzeko aurkeztu beharreko aitorpen eredua eta haren aurkezpen modua, baita obligazio hori bitarteko elektronikoen bidez betetzeko kasu eta baldintzak ere, hala behar denean.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 231 eredua onestea.*

Onarturik geratzen da «Informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua», foru agindu honetako eranskinean ageri den edukia duena.

*2. artikulua. 231 ereduaren edukia.*

1. Informazioa herrialdez herrialde aurkezteko aitorpenak informazio hau bilduko du, modu agregatuan eta herrialde edo jurisdikzio bakoitzeko, entitate nagusiaren zergaldiari dagokionez:

a) Taldearen sarrera gordinak, entitate lotuekin edo hirugarrenekin lortutakoak bereizita.

b) Sozietateen gaineko zerga edo izaera bera edo antzekoa duten beste zerga batzuk aplikatu aurretik izandako emaitzak.

c) Ordaindutako sozietate zergak edo izaera bera edo antzekoa duten bestelakoak, jasandako atxikipenak barne.

d) Sortutako sozietate zergak edo izaera bera edo antzekoa duten bestelakoak, atxikipenak barne.

e) Zergaldia amaitzen den egunean kapitala zenbatekoa den eta banatu gabeko emaitzak zein diren.

f) Batez besteko plantilla.

g) Diruzaintza eta kreditu eskubideak ez diren aktibo materialak eta higiezinetako inbertsioak.

h) Entitate egoiliarren zerrenda, establezimendu iraunkorrak eta haietako bakoitzak egindako jarduera nagusiak barruan sartuta.

i) Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio, eta, hala badagokio, informazioan jasotako datuen azalpena.

2. Egoitza lurralde espainiarrean duen entitatea informazioa herrialdez herrialde ematera behartuta dagoen talde bateko kide bada, informazio hori prestatu behar duen entitatearen identifikazioa eta haren egoitzako herrialdea edo lurraldea ere adierazi beharko dira.

3. Artikulu honetan ezarritako informazioa eurotan adierazi beharko da.

*3. artikulua. 231 eredua aurkezteko epea.*

«Informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua» hamabi hilabeteko epean aurkeztuko da, eman behar den informazioari dagokion zergaldia amaitzen denetik aurrera.

saber: el contenido, el plazo y las condiciones generales y el procedimiento para la presentación electrónica del modelo, así como el formato y diseño de los mensajes informáticos en los que consiste la declaración de información país por país.

Por lo que a la habilitación normativa se refiere, el apartado 1 de artículo 20 bis del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, que contiene el desarrollo reglamentario de dicho suministro de información, establece que la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobará el modelo de declaración que deberá presentarse para el cumplimiento de la obligación de información establecida en el apartado 10 del artículo 43 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como la forma de presentación y, en su caso, los supuestos y condiciones en que la obligación deberá cumplirse por medios electrónicos.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 231.*

Se aprueba el modelo 231 «Declaración de información país por país», cuyo contenido figura en el anexo de la presente orden foral.

*Artículo 2. Contenido del modelo 231.*

1. La declaración de información país por país comprenderá, respecto del período impositivo de la entidad dominante, de forma agregada, por cada país o jurisdicción, la siguiente información:

a) Los ingresos brutos del grupo, distinguiendo entre los obtenidos con entidades vinculadas o con terceros.

b) Los resultados antes del impuesto sobre sociedades o impuestos de naturaleza idéntica o análoga al mismo.

c) Los impuestos sobre sociedades o impuestos de naturaleza idéntica o análoga satisfechos, incluyendo las retenciones soportadas.

d) Los impuestos sobre sociedades o impuestos de naturaleza idéntica o análoga al mismo devengados, incluyendo las retenciones.

e) El importe de la cifra de capital y resultados no distribuidos existentes en la fecha de conclusión del período impositivo.

f) La plantilla media.

g) Los activos materiales e inversiones inmobiliarias distintos de tesorería y derechos de crédito.

h) La lista de entidades residentes, incluyendo los establecimientos permanentes y actividades principales realizadas por cada una de ellas.

i) Otra información que se considere relevante y una explicación, en su caso, de los datos incluidos en la información.

2. Cuando la entidad residente en territorio español forme parte de un grupo obligado a presentar la información país por país, se deberá de suministrar también, la identificación y el país o territorio de residencia de la entidad obligada a elaborar esta información.

3. La información establecida en este artículo se presentará en euros.

*Artículo 3. Plazo de presentación del modelo 231.*

La presentación del modelo 231 de «Declaración de información país por país» se podrá realizar desde el día siguiente a la finalización del período impositivo al que se refiera la información a suministrar hasta que transcurran doce meses desde la finalización de dicho periodo impositivo.

EK\CV GAO-I-2020-07084

*4. artikulua. 231 eredua elektronikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura.*

1. «Informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua» telematikoki aurkeztuko da, Internet bidez, hurrengo apartatuetan jasotzen diren baldintza orokorrei jarraituz.

2. Ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko betebeharra arautzen duenak, 2. eta 3. artikuluetan jasotako baldintzei eta prozedurari jarraituz egingo da aitorpenaren aurkezpen elektronikoa, eta, horretarako, bai egoitza elektronikoan eta bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean beharrezkoa den informazioa jarriko 231 eredua elektronikoki bidaltzeko zerbitzuari buruz, gainerako formulario, eredu normalizatu, laguntza programa edo zerbitzuekin batera.

Hartara, informazioa herrialdez herrialde aurkezteko aitorpenaren mezu informatikoek bat etorri beharko dute foru agindu honen eranskinean ageri den edukiarekin.

Aitorpenak akatsik badu, errefusatzeko arrazoirik ematen ez duten erregistroak bakarrik onartuko dira. Kasu horretan, erantzunaren mezu informatikoak jasoko ditu onartu eta errefusatu diren erregistroen zerrendak, haiek ez onartzeko arrazoia adierazita. Errefusarik gertatuz gero, entitate nagusiak, menpekoak edo subrogatuak beharrezko zuzenketak egin beharko ditu, eta berriro aurkeztu beharko du aitorpena, errefusatutako erregistroak barruan sartuta. Erregistroetako bat onartzen bada, erantzunaren mezu informatikoak 16 karaktereko ziurtapen kode seguru bat izango du, baita data eta ordua ere.

3. Lehendik aurkeztu den eta zergaldi berberari dagokion aitorpen baten aitorpen osagarriak edo ordezkoak aurkezteko erabiltzen diren mezu informatikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean aurkezpenaren unean ezarrita dauden beharkizun teknikoei jarraituz bidaliko dira. Webgunearen sarbidea hemen:

https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna/inicio.

*5. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua.*

Informazioa herrialdez herrialde aurkezteko aitorpenaren mezu informatikoen formatua eta diseinua eta, orobat, foru agindu honen eranskinean definitutako edukiaren elementuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean une bakoitzean agertzen direnak izango dira. Webgunearen sarbidea hemen:

https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna/inicio.

*Xedapen indargabetzaile bakarra.*

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indarrik gabe geratzen da urtarrilaren 16ko 41/2017 Foru Agindua, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua onartzen duena.

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren 231 aitorpen ereduei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

Donostia, 2020ko abenduaren 29a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(7084)

*Artículo 4. Condiciones generales y procedimiento para la presentación electrónica del modelo 231.*

1. La presentación del modelo 231 «Declaración de información país por país», se efectuará por vía telemática a través de Internet, de acuerdo con las condiciones generales previstas en los apartados siguientes.

2. La presentación electrónica de la declaración se realizará con sujeción a las condiciones y al procedimiento establecidos en los artículos 2 y 3 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, para lo cual, en la sede electrónica, y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas se informará y estarán disponibles junto con el resto de los formularios o modelos normalizados, programas de ayuda o servicios, el servicio de remisión electrónica del modelo 231.

A tal efecto, deberán presentar los mensajes informáticos en que consiste la declaración de información país por país ajustados al contenido que figura en el anexo de esta orden foral.

Si la declaración contuviera errores, sólo se aceptarán aquellos registros para las que no exista motivo de rechazo. En este caso, el mensaje informático de respuesta contendrá las relaciones de registros aceptadas y rechazadas junto con la expresión del motivo por el que no hayan sido aceptadas. En caso de rechazo, la entidad matriz, filial o subrogada deberá realizar las correcciones necesarias y proceder a una nueva presentación en la que incluirán los registros que en su momento fueron rechazados. Si alguno de los registros resulta aceptado, el mensaje informático de respuesta incorporará un código seguro de verificación de 16 caracteres, además de la fecha y hora.

3. La presentación de los mensajes informáticos por medio de los cuales se presenten las declaraciones complementarias o sustitutivas de otra declaración presentada anteriormente que se refiera al mismo período, se realizará de acuerdo con los requisitos técnicos que consten en el momento de la presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas, a la cual se podrá acceder a través de la dirección:

https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna.

*Artículo 5. Formato y diseño de los mensajes informáticos.*

El formato y diseño de los mensajes informáticos en los que consiste la declaración de información país por país, así como los elementos en que se concrete el contenido de la misma, definido en el anexo de la presente orden foral, serán los que en cada momento consten en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas a la cual se podrá acceder a través de la dirección:

https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna.

*Disposición derogatoria única.*

A partir de la entrada en virgor de la presente orden foral queda derogada la Orden Foral 41/2017, de 16 de enero, por la que se aprueba el modelo 231 de declaración de información país por país.

*Disposición final única. Entrada en vigor y aplicación.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y será de aplicación por primera vez para la presentación de las declaraciones informativas, modelo 231, correspondientes al año 2020 y que se presentarán en 2021.

San Sebastián, a 29 de diciembre de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(7084)

EK\CV GAO-I-2020-07084

# ERANSKINA

## Entitate aurkezlearen identifikazioa

Sozietatearen izena

IFZ

Hiria

Herrialdez herrialdeko txostena aurkezteko baldintza: (1)

- ☐ Entitate nagusia, SZFAren 43.10. artikuluko 1. paragrafoa
- ☐ Entitate subrogatua, SZFAren 43.10 artikuluko 3. paragrafoa
- ☐ Eratzailea, Informazio osatua, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 2. paragrafoa a) letra, Entitate nagusiaren jurisdikzioan aitortu beharrik ez
- ☐ Eratzailea, Informazio osatua, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 2. paragrafoa b) letra, Entitate nagusiaren jurisdikzioarekin akordiorik ez
- ☐ Eratzailea, Informazio osatua, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 2. paragrafoa c) letra, Ez-betetzeak entitate nagusiaren jurisdikzioan
- ☐ Eratzailea, Informazio osatua, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 3. paragrafoa, Eratzaile izendatua
- ☐ Eratzailea, Infomazio osatugabea, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 2. paragrafoa a) letra, Entitate nagusiaren jurisdikzioan aitortu beharrik ez
- ☐ Eratzailea, Infomazio osatugabea, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 2. paragrafoa b) Entitate nagusiaren jurisdikzioarekin akordiorik ez
- ☐ Eratzailea, Infomazio osatugabea, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 2. paragrafoa c) letra Ez-betetzeak entitate nagusiaren jurisdikzioan
- ☐ Eratzailea, Infomazio osatugabea, zergatia SZFAren 43.10 artikuluko 3. paragrafoa, Eratzaile izendatua

(1) Markatutako aukera bat etorriko da 231 ereduko aitorpenaren aurretiazko komunikazioan jarritakoarekin

## Taldearen identifikazioa

Talde multinazionalaren izena

Entitate nagusiaren izen soziala

Entitate nagusiaren IFZ ondorio fiskaletarako

Finkatuta dagoen herrialdea

## Ikuspegi orokorra mozkinak, zergak eta jarduera ekonomikoak jurisdikzio fiskalaren arabera banatzeari buruz

| Jurisdikzio fiskala | Sarrerak | | | Mozkinak/ (galerak) sozietate zergaren aurretik | Sozietate zerga(2) ordaindua (kutxa irizpidea) | Sozietate zerga (2) sortua (uneko urtea) | Aitortutako kapitala | Mozkin banatu gabeak | Langile kopurua | Aktibo ukigarriak, diruzaintza edo diruzaintzaren tresna baliokideak ez direnak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hirugarren. | Entitate lotua | Guztira | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

(2) Adierazi sozietateen gaineko zerga edo, hala badagokio, horren antzekoa den mozkinen gaineko zerga.

## Jurisdikzio fiskalaren araberako agregazio bakoitzean sartuta dauden talde multinazionaleko entitate guztien zerrenda

| Jurisdikzio fiskala | Jurisdizkio fiskalean egoiliar diren taldeko entitateak | Eraketa edo antolaketako jurisdikzio fiskala, egoitzako jurisdikzio fiskalaren desberdina bada | Jarduera ekonomiko nagusia(k) | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Ikerketa eta garapena | Jabetza intelektualaren titularitatea edo kudeaketa | Erosketak edo hornidurak | Fabrikazioa edo produkzioa | Salmentak, komertzializazioa edo banaketa | Administrazio, kudeaketa edo laguntza zerbitzuak | Elkartu gabeko entitateei emandako zerbitzuak | Taldeko barne finantzak | Arautuako zerbitzu finantzarioak | Seguruak | Akzioen edo kapitala ordezkatzen duten beste tresna batzuen titulartasuna | Jarduerarik gabe | Beste bat (3) |
| | 1. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 2. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 3. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 1. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 2. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 3. | | | | | | | | | | | | | | |

(3) Adierazi, "informazio osagarria" atalean, taldeko entitatearen jardueraren izaera.

## Informazio gehigarria

Informazio edo azalpen osagarriak sartu behar dira, laburbilduta, baldin eta beharrezkoak badira edo errazten badute herrialdez herrialdeko txostenean derrigorrez jasotako informazioa ulertzea.

**ANEXO**

## Identificación de la entidad presentadora

Denominación social ______ NIF ______

Ciudad ______

Condición por la que presenta el informe País por País: (1)

☐ Matriz art. 43. 10.,1$^{er}$ párrafo de la NFIS
☐ Entidad subrogada art. 43. 10., 3$^{er}$ párrafo de la NFIS
☐ Constitutiva Información completa, motivo art. 43. 10., 2º párrafo de la NFIS, letra a) No obligación a declarar jurisdicción de la entidad dominante
☐ Constitutiva Información completa, motivo art. 43. 10., 2º párrafo de la NFIS, letra b) No acuerdo con jurisdicción de la entidad dominante
☐ Constitutiva Información completa, motivo art. 43. 10., 2º párrafo de la NFIS, letra c) Incumplimientos jurisdicción de la entidad dominante
☐ Constitutiva Información completa, motivo art. 43. 10.,3$^{er}$ párrafo de la NFIS Constitutiva designada
☐ Constitutiva Información incompleta, motivo art. 43. 10., 2º párrafo de la NFIS, letra a) No obligación a declarar jurisdicción de la entidad dominante
☐ Constitutiva Información incompleta, motivo art. 43. 10., 2º párrafo de la NFIS, letra b) No acuerdo con jurisdicción de la entidad dominante
☐ Constitutiva Información incompleta, motivo art. 43. 10., 2º párrafo de la NFIS, letra c) Incumplimientos jurisdicción de la entidad dominante
☐ Constitutiva Información incompleta, motivo art. 43. 10.,3$^{er}$ párrafo de la NFIS Constitutiva designada

(1) La opción marcada debe coincidir con lo indicado en la Comunicación Previa de la Declaración del Modelo 231

## Identificación del grupo

Denominación o nombre del grupo multinacional ______

Denominación social de la entidad matriz ______ NIF a efectos fiscales de la entidad matriz ______

País en el que reside ______

## Visión general del reparto de beneficios, impuestos y actividades economicas por jurisdicción fiscal

| Jurisdicción fiscal | Ingresos | | | Beneficios/ (Pérdida) antes de Impuestos sobre sociedades | Impuesto sobre Sociedades(2) pagado (criterio caja) | Impuesto sobre Sociedades(2) devengado (año en curso) | Capital declarado | Resultados no distribuidos | Número de trabajadores | Activos tangibles distintos de tesoreria e instrumentos equivalentes a tesorería |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Terceros | Entidad vinculada | Total | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

(2) Indíquese el Impuesto sobre Sociedades o, en su caso, el Impuesto sobre Beneficios análogo.

## Lista de todas las Entidades Integrantes del grupo multinacional incluidas en cada agregación por jurisdicción fiscal

| Jurisdicción fiscal | Entidades integrantes residentes en la jurisdicción fiscal | Jurisdicción fiscal de constitución u organización, si es distinta de la jurisdicción fiscal de residencia. | Principales(es) actividad(es) ecónomica(s) | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Investigacion y desarrollo | Titularidad o gestión de propiedad intelectual | Compras o suministros | Fabricación o producción | Ventas, comercialización o distribución | Servicios de administración, gestión o apoyo | Prestación de servicios a entidades no asociadas | Finanzas internas del Grupo | Servicios financieros regulados | Seguros | Titularidad de acciones u otros instrumentos representativos de capital | Sin actividad | Otra (3) |
| | 1. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 2. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 3. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 1. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 2. | | | | | | | | | | | | | | |
| | 3. | | | | | | | | | | | | | | |

(3) Indíquese la naturaleza de la actividad de la Entidad Integrante en la sección "información adicional".

## Información adicional

Incluir de manera sucinta la información o explicaciones adicionales que se consideren necesarias o que faciliten la comprensión de la información preceptivamente consignada en el informe país por país

EK\CV GAO-I-2020-07084